



'Kontuz perretxikoekin!' hitzaldiarekin hasiko dira Casino elkarteen Mikologia jardunaldiak

Tolosako elkarteak laugarren urtez jarraian antolatu
ditu jardunaldiak, eta Salvador Aviles Amat medikuak
emango du lehen hitzaldia, gaur, 20:00etan 2

Galtzaundi Euskara Taldearen Mintzalagun egitasmoak euskal hiztun gehiago behar ditu

Dagoeneko martxan jarri dituzte bederatzita talde
euskara praktikatzeko, baina herritar gehiagok izena
ematea beharrezkoa dute talde berriak osatzeko 3



tolosaldeko

ataria



TOLOSALDEKO hitza



Asteazkena, 2013ko urriaren 16a. 1. urtea. 8. zenbakia. www.ataria.info

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN AUZI EKONOMIKOAK, HAMAR URTE

2003ko urriaren 16an kazetaren aurkako
bigarren operazioan Amando Hernandez
tolosarra atxilotu zuten; egun Begoña Zubelzu
ibartarrak auzipetuta jarraitzen du. 7

Ayestaran eta Lopezek beren kontrako akusazioak ukatu dituzte

Billabonatarrek eta tolosarrak berrogei gazteren
aurkako 26/11 sumarioan deklaratu dute 7

TXOMIN CASTRO OMENDUKO DUTE

Amasa-Villabonako tronpetajolea oroituko dute
larunbatean, besteak beste, afaria izango da 6



Jose Ariztimuño 'Aitzol' (ezkerretik bigarrena) euskaltzale tolosarra euskal idazleen biltzar batean, Izaban. ATARIA

Gaur estreinatuko dute 'Aitzol'-en bizitzaren gaineko dokumentala

Aranzadi Zientzia Elkarteak egin du 'Aitzol. Euskal
Pizkundearen heriotza' dokumentala 4-5



*Egin zaitez
atarikide!*

943-65 56 95
ataria@ataria.info

Onddoek eta perretxikoek Tolosa hartuko dute lau egunetan

Casino Elkartek Mikologia Jardunaldiak antolatu ditu Tolosan; gaur, 20:00etan, Salvador Aviles Amat medikuak 'Kontuz perretxikoekin!' hitzaldia eskainiko du

ASIER IMAZ

Tolosako Casino Elkartek IV. Mikologia Jardunaldiak antolatu ditu gaurtik hasi eta larunbatera bitarte. Lau eguneko egitarauaren barruan, hitzaldiak, sukaldaritza erakustaldiak, mendi irteera eta abar egongo dira. Casino Elkarteko Joxe Mendizabalek aurkeztu ditu jardunaldiak, Solana 4ko Sonia Tapia eta Astelena Jatetxeko Peio Dohiazabal sukaldarien laguntzaz.

Mikologia Jardunaldiak 2010ean berreskuratu zituen Tolosako Casinok. Duela hiru urte, hain zuzen ere, elkartearen 125. urteurrena ospatzen zirela, eta garai batean egiten zizuten ekimenen artean, Mikologia Jardunaldiak zeudela ikusi zuten. Urtemuga horren aitzakian, iragana orain bilakatzea erabaki zuten, eta herritarren harrera ona ikusita, 2011n jardunaldiei jarraipena eman zien. 2012an, Mikologia Jardunaldiek «oinarri sendoak» hartu zituzten, Mendizabalen esanetan, eta aurten, laugarren edizioaren txanda iritsi da. Casinokoak arrodande herriari egiten dioten ekarpenarekin: «Tolosarentzat eta tolosarrentzat udazkeneko zita garrantzitsu bihurtu dela uste baitugu».

Egitaraua ofizialki gaur jarriko dute martxan, baina aurrez, Mendi-

zabalek dioen bezala, elkarteko ki-deentzat sukaldaritza ikastaroa prestatu zuten, «bazkideen artean giroa berotzen joateko». Ikastaro hori astelehenean burutu zuten, eta Sonia Tapia sukaldaria izan zuten irakasle eta laguntzaile Casino Elkartean.

Jardunaldiei dagokienez: «Egitarauak aurreko urteetako eskema bera izango du, aldaketa txiki batzuekin», azaldu dute antolatzaileek. Aurten, adibidez, Tolosara ekarriko duten sukaldari izarra, Bidaniako Iriarte Jauregia-Hoteleko Enrique Fleischmann mexikarra izango da. Joxe Mendizabalek bere ibilbidea kontatu du, eta Fleischmann Mikologia Jardunaldietan egotea «ohore bat» dela esan du: «Enrique Subijana-rekin hasi zen ikerketa lanetan, eta ondoren, Argiñano, Arzak eta beste sukaldari handi askorekin aritu da lanean. Mexikarra Fronton Jatetxeko Roberto Ruiz sukaldariarekin batera egongo da Zerkausian, ekimen miko-gastronomiko batean».

Ostiralean, duela 40-50 urte egiten zen bezala, Tolosa eta inguruko ikastetxeetako haurrekin mendira joango dira Casino Elkarteko kideak, perretxikoak biltzera. Ekimen honetan, Hirukide, Laskorain eta Anoetako Ikastolako DBH1eko gaz-



Mikologia Jardunaldiak laugarren urtez jarraian antolatu ditu, Casino elkartek. A. I.

tetxokoek hartuko dute parte. Mendi itzulia egin ostean, bildutakoa Aranzadi zientzia elkartekoek sailkatuko dute, ostiralean bertan, ondoren, larunbateko azoka berezian ikusgai jartzeko. Hilaren 18arekin amaitu aurretik, iazko berrikuntza aipatu behar da, Joxe Mendizabalek iragarri bezala, aurten ere, elkarteen arteko sukaldaritza mikologiko lehiaketa eustea erabaki baitute. Zerkausian ibiliko dira partaideak perretxiko eta su artean.

Azken eguna, larunbata izango da. Azoka berezian Tolosako eta Goierriko hainbat sukaldari elkartuko dira, euren jatetxeak ordezkatzuz. Mendizabalek ekimen hau behin eta berriz azpimarratu nahi izan du, «Mikologia Jardunaldietan sukaldari hauen presentzia oso garrantzitsua baita guretzat». Hauek egindako pintxoak euro batean salduko dituzte eguerdian, eta edaria ere egongo dela esan du Casino Elkarteko kideak.

Egitaraua

URRIAK 16, GAUR

20:00. Kontuz perretxikoekin! hitzaldia, Casino Elkarteko lehenengo solairuan Jesus Salvador Aviles Amat-en eskutik. Donostia Unibertsitate Ospitaleko Larrialdi zerbitzuetako medikua da, eta perretxikoek eragindako intoxikazioen tratamenduan aditua.

URRIAK 17, OSTEGUNA

20:00. Ekimen miko-gastronomikoa Zerkausian. Enrique Fleischmann, Bidaniako Iriarte Jauregia-Hoteleko sukaldaria, eta Roberto Ruiz, Tolosako Fronton jatetxeko sukaldariaren eskutik. Bertan, perretxiko mota ezberdinak sukaldatuko dira, eta gerturatzen diren guztiek dastatzeko aukera izango dute.

URRIAK 18, OSTIRALA

09:00. Tolosaldeko ikastetxeetako DBH 1. mailako ikasleak perretxikoak biltzera irtengo dira. Arratsaldean Aranzadiko kideek Tolosako Casinon sailkatuko dituzte.

19:00. Elkartee arteko sukaldaritza mikologiko lehiaketa, Zerkausian. Partaideak: Gure Txokoa, Veleta, La Jara, Txinparta, Yurre, Aurrera, Kabi Alai, Arsenal, Oargi eta Casino.

URRIAK 19, LARUNBATA

12:00. Azoka mikologikoa, Trianguloan. Tolosa eta Goierrialdeko jateetxeetako sukaldariak pintxoak prestatuko dituzte, osagai nagusiak: onddoak eta perretxikoak. Route 33; RK Jatetxea (Hotel Dolarea); Martinez Jatetxea; Larrea Plater Prestatuak - Jatetxea; Olentzo Jatetxea; Astelena Jatetxea; Solana 4; Leaburuko Ostataua; Botarri; Seikin 2 eta Casino Elkartea. Tolosaldeko ikasleek bezperan bildutako perretxikoak egongo dira ikusgai.

IRAGARKI LABURRAK

GALDUTAKOAK

Graduatutako betaurrekoak: Nesken graduatutako betaurrekoak galdu ziren kilometroen egunean Tolosan. Aurkitu dituenak, deitu 692 758487 telefono zenbakira.

Zure iragarki laburra jartzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira edo idatzi ataria@ataria.info helbidera.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Irudia Tolosa



Markel Olanok Lehiberri Zentroa ezagutu du

Lehiberriko egitasmoen garrantzia azpimarratu du Olanok: «Lanarena da jendeak duen kezka handienetako bat, eta ezinbestekoa da ongizatea bultzatzeko

honetako proiektuetan sakontzea». Jose Luis Urdangarin arduradunak erakutsi dio egoitza, eskualdeko beste zenbait ordezkariarekin batera. **A. GOIKOETXEA**

Mintzalaguna egitasmoa hiztun bila

Galtzaundi Euskara Taldeak martxan jarri du aurtengo Mintzalaguna egitasmoa. 9 talde osatu bada ere, hiztunen beharra dago oraindik

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Mintzalaguna egitasmoa posible egiten duten norbanakoekin elkartu da ATARIA. Galtzaundiko teknikari Idoia Lahidalgak egitasmoaren nondik norakoan berri eman du. Ainhoa Aizpuru eta Maikel Gomez hiztunak, boluntario gisa aritzean jasotzen dutenaz mintzatu dira.

Tolosako Galtzaundi Euskara Taldeak euskaraz hitz egiteko erraztasuna ez dutenei, ahazkotasuna praktikan jartzeko proiektua eskaintzen die, Mintzalaguna egitasmoa.

Ikasturtea hasi berri den honetan, dagoeneko 50 pertsonen izena eman dute; hainbat talde oraindik ezin izan dira hasi hiztuna, gidari papera burutuko duena, falta delako.

Mintzalagunaren baitan Hitano taldea ere kokatzen da. Euskaldunei zuzendutako egitasmoa da honakoa: «Hika praktikatu nahi dutentzat, praktikarekin ikasten delako», dio Galtzaundiko teknikariak. Hitano taldeak Galtzaundin bilakera luzea badu ere, aurten oraingoz ez da talderik osatu eta horrenbestez Euskara Taldeak euskaldunei

deia luzatu die: «Euskaldunak beste pauso bat ematera bultzatu nahiko genituzke, hika eskuragarri dago eta Galtzaundik espazio bat sortu nahiko luke hitanoa praktikan jartzeko», adierazi du Idoia Lahidalgak, Galtzaundiko teknikariak.

Izena emateko

Mintzalaguna edo hiztun gisara aritzeko Galtzaundi Euskara Taldeko Idoia Lahidalga teknikariarekin harremanetan jarri beharra dago. Astean ordubetz euskara praktikatzeko aukera izango dute mintzalagunek, eta hiztunek astean ordubetz euskararen trebakuntzan laguntzeko beta izango dute. Hitano taldeari buruz datu gehiago eskuratzeko bide berdinari ekin behar zaio:

Galtzaundi Euskara Taldea
Nafarroa etorbidea, 6 behea.
Tolosa.
943 655004
publizitatea@galtzaundi.com

Maikel Gomez eta Ainhoa Aizpuru • Mintzalaguneko hiztunak

«Euskararen igerileku aberats honetara etor zaitezte»

Maikel Gomez Sanchez Lemoakoa da, bizkaitarra. 32 urte ditu eta irakaslea da lanbidez. Ikasturte berriarekin batera, Tolosan bizitzen jarri da, eta euskarari ekarpena egin asmoz Galtzaundiren Mintzalaguna egitasmoan hiztun gisara eman du izena. Herri berri batean egonik, jendea ezagutzeko bidea ere bada Mintzalaguna Maikelentzat.

Ainhoa Aizpuru Garmendia ordea, tolosarra da, 23 urte ditu eta lanbidez erizaina da. Mintzalaguna taldeko gidari lana bigarren urtez hartu du Ainhoak. Txandakako erreleboan aritzen da Ainhoa lanean, goizez eta arratsaldean. Hasiera batean, Mintzalaguna egitasmoan jardun ahal izateko traba izango zela pentsatu bazuen ere, gerora ez du arazorik izan: «Galtzaundikoen laguntzaz aritzen naiz, Idoia Lahidalgak hartzen du nire papera ni ez nagonean. Taldeak astero-astero jarraipen bat izaten du horrela».

Noiz eta zergatik hasi zineten hiztun gisara kolaboratzen?

Maikel Gomez: Orain dela gutxitik Tolosan bizi naiz. Egun batean kaltetik nindoala kartel bat ikusi nuen Galtzaundik hiztunak behar zituela, bertara joan, Idoia Lahidalga ezagutu eta berak informazioa eskainita egitasmoan hasi nintzen. Oso jardura interesgarria eta aberatsa iruditu zitzaidan. Hasiera batean, ez dakizu nondik nora joango den, ekarpenen bat egingo duzun edo ez, baina gero hasi eta ikusten duzu ekarpena berez mintzalagunek egiten dutela, euren esfortzuekin. Mintzalaguna proiektu egokia iruditu zitzaidan euskara munduan murgiltzen laguntzeko. Euskara guretzako horren aberatsa izanik, zaindu eta sustatu behar dugu. Euskararen alde apur hori ematearekin pozik nago.

Ainhoa Aizpuru: Goiz batean jaiki eta gosaltzen ari nintzela, hitza irakurtzen ari nintzela, deialdi bat irakurri nuen: Galtzaundik hiztunak behar zituen. Momentuan bertan Galtzaundin azaldu nintzen, iruditzen zitzaidan lastima zela jendea euska-



Maikel Gomez, Ainhoa Aizpuru eta Idoia Lahidalga. N.R.D.A.

ra ikasteko gogoarekin egon eta jendea laguntzeko prest ez egotea. Guri hain erraz ateratzen zaigun hizkuntza, beste batzuek ikasteko gogoia izan eta praktikatzeko aukerarik ez edukitzeak lastima eman zidan.

Zenbat mintzalagunek osatzen dute zuen taldea? Zer nolako profila osatzen dute?

“**Euskararen alde apur hori ematearekin pozik nago**”

MAIKEL GOMEZ • HIZTUNA

M.G.: Sei bat pertsona daude nire taldean. Gehienak kanpotarrak dira. Bikote argentinar bat dago, Venezuelako neska bat... Urte pare bat daramatzate Euskal Herrian, euskara euskaltegian ikasi dute baina hitz egiteko orduan freskotasuna falta zaie.

A.A.: Nire taldean sei mintzalagun daude. Perfil aldetik, gehienak hemengoak dira. Kataluniar bat eta Logroñoko beste partaide bat ere badaude baina gainontzekoak ingurukoak dira, txikitatik euskara euren ama-hizkuntza izan ez dutenak. Bizpahiru kasu ere badaude erretiro garaian daudenak, bilobekin euska-

raz hitz egin ahal izateko egitasmo honetara gerturatu direnak. Beste bi kasu badaude euskara lan munduan behar dutenak, horretan burubelari dabilta. Azkenik, Kataluniatik eta Logroñotik etorritakoen kasua dago, haiek euskara ikasi nahi izan dute bertako hizkuntza delako, interesatuta daudelako.

Nola dinamizatzen dituzue zuen taldeak?

M.G.: Mintzalagunak eroso sentitzea da helburua, haiek erabakitzen duten tabernan biltzen gara, leku ezberdinak probatuko ditugu. Gaiak berriz, berez sortzen dira.

A.A.: laz tabernetan biltzen ginen, baina jendearen iritzi orokorra zaratat distraitzeko aukera erraza sortzen zuela izan zen, orduan kultur etxean hasi ginen probatzen eta egia esan gustura daudela esaten dute. Hasiera batean, berez datozen gaien inguruan hasi ginen hizketan eta saio asko egin ditugu horrela, baina orain mintzalagun bakoitzak bere interesari heldu dio.

Batek, esaterako, ahazkotasun proba bat gauditu nahi zuela aipatu zuen. Horri begirako saioa prestatu dugu; gai bat eman, hiruko taldean bildu eta talde bakoitzari gai bat eman zaio, hasiera batean bakoitzak bere iritzia ematen du eta ondoren hiruren artean eztabaidatzen dute, ahal bada ondorio batera iritsi-

ko da talde bakoitza. Beste mintzalagun batek, irakurmena landu nahi zuela esan zidan. Hurrengo saio batean artikuluren bat landu dezakegu orduan. Pixkanaka mintzalagun bakoitzaren nahiak eta ahuleziak aterako dira, ase nahi diren alor horiek.

“**Eman baino gehiago, jaso egiten dudala iruditzen zait**”

AINHOA AIZPURU • HIZTUNA

Orain zerrendatutakoa, azken batean, zuek eskaintzen duzue. Baina, zer da jasotzen duzue?

M.G.: Apur bat ematearekin askoz gehiago jasotzen dut. Mintzalagunek nire ekarpenak asko eskertzen dituzte. Hori da inportantea.

A.A.: Eman baino gehiago jaso egiten dut. Miresgarria iruditzen zait

euskara ikasteko haiek duten nahia eta borondatea. Horregatik, gure eskaintza eduki behar dute, erantzun bat eman behar zaie.

Zure kasuan, Ainhoa, iaz ikasturte oso bat bete zenuen Mintzalaguna proiektuan. Mintzalagunen bilakera antzeman ahal izan zenuen ikasturte amaieran?

A.A.: Euskara aldetik bai, baina bereziki soltura aldetik bilakaera jasan zutela esan dezaket, askoz gehiago parte hartzen zuten ikasturte amaieran. Dudarik gabe, atzerapena baino gehiago aurrerapena antzeman nuen.

Nola animatuko zenukete jendea mintzalagun eta hiztun gisa parte hartzera?

M.G.: Beldurrik gabe etortzeko esango nieke. Euskara ikasi eta sakondu nahi izatekotan, euskararen igerileku honetara etortzeko esango nieke, igerileku aberatsa baita honakoa. Oso gomendagarria iruditzen zait. Lotsak etxean utzita asko jasoko dute.

A.A.: Hiztunei dagokionez, guk ematen dugun gutxiarekin besteei zenbat eskaintzen diegun konturatzen gara. Guk horren erraz egiten dugunak, besteei zenbat laguntzen dien pozgarria da. Mintzalaguneri berriz, akatsak eginez ikasten dela esango nieke. Horretarako da, hain zuzen ere, Mintzalaguna egitasmoa, euskara ez dakitenek euskara ikas dezaten; ez dakitenek, hitz egin dezaten.

M.G.: Tankerako ekimen gehiago egon daitezela, euskararentzat onuragarria baita!

Beti alai
jatekoa

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremitteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Pizkundeko txinpartari, omen



Bertsolaritza kulturaren goi mailako jarduna zela defendatu izan zuen beti, eta saioak nahiz lehiaketak dinamizatzen eta gizarteratzen aritu zen Aitzol. ATARIA

‘Aitzol. Euskal Pizkundearen heriotza’ dokumentala estreinatuko dute, gaur, Donostiako Antzoki Zaharrean.

ITZEA URKIZU

Donostiako Antzoki Zaharra izango da gaur, Jose Ariztimuño *Aitzol* zena- ren omenaldiaren lekuko. Ez da kasualitatez aukeraturiko tokia izan, Aranzadi Zientzia Elkarteak ekoiztu- riko dokumentala estreinatzeko. Izan ere, urriaren 16 bat izan zen, Antzoki Zaharretik gertu, *Aitzol* bizi- rik ikusi zuten azken eguna, Ondar- retako kartzelan.

Sinbolikotasun honen bila joan dira *Aitzol. Euskal Pizkundearen heriotza* dokumentaleko arduradunak, sinbolotzat baitute Ariztimuño bera ere: «Gure herriko kultur pizkundea- ren erreferente handi bat izan da,

eta euskararen berreskuratzean ait- zindari ere bai».

Horrela, eta *Aitzolek* izandako heriotza lazgarria medio, bere oroimen historikoa ere berreskuratu nahi izan du Aranzadik. Elkartearen lehen autoekoizpen luzea da dokumentala, eta Juantxo Agirre Mauleon tolosarra aritu da zuzendari lane- tan, Eider Conde bidelagun izan duela.

Aitzolen izaera ekintzailea hainbat ikuspuntutatik ezagutarazi nahi izan dute ikus-entzunezko lan hone- tan, eta guztira, euskal gizarteko ordezkari diren hamaika ahotsek osatu- tuko dute dokumentala.

Estreinaldia 19:30ean hasiko da,

Donostiako Antzoki Zaharrean, eta Mikel Markez, Eñaut Elorrieta eta Asier Elorriaga ariko dira saio hasie- ran; hauekin batera, Harkaitz Canok ere zenbait testu irakurriko ditu.

Estreinaldi guztiek duten berezi- tasunetik harago, *Aitzol. Euskal Piz- kundearen heriotza* lanaren estreinaldia are bereziagoa izango da, ez baitute 2014ra bitarte, aretoetan eskainiko, Agirre Mauleonek azaldu duenez: «Gaia zaila da, eta gure hel- burua, datorren urtean Donostiako Giza Eskubideen zinemaldian film hau aurkeztea da. Ordura arte ez dugu lana inon eskaintzeko asmo- rik, beraz».

Ezohiko erlijio gizonaren historia

1896an Tolosan jaio zen Jose Arizti- muño Olaso *Aitzol*, eta herriko erre- tore euskaltzale Patrizio Orkaiztegi- ren irakaspenak jaso zituen gazte- tan.

Hamahiru urte zituela, Comillase- ra (Kantabria, Espainia) joan zen bi anaia zaharragoekin apaiz ikaske- tak egitera, eta Humanitateak eta Filosofia ikasi zituen. Badirudi arra- zoi politikoak izan zirela Comillase- ko ikastetxetik kanporatu zutenak, eta Gasteizera joan zen, han apaiz jarduteko.

1929ra arte misioingintzan aritu zen, eta bronkioetako gaisotasun bat medio, zeregin horiek utzi egin behar izan zituen. Orduan eman zi- tuen pausorik sendoenak euskal- gintzan, Euskaltzaleak erakundea sortzen ari baitzen hain justu, 1929an.

Bere bi bizinen hasierekin osa- tu zuen *Aitzol* ezizena, eta 1930etik aurrera, euskal kultura, politika, lite- ratura nahiz artea hizpide izan zi- tuen hainbat artikulutan, sinadura horrekin.

Euskal gizartea eraiki eta norta-

suna hartzea helburu zuen, eta *El Día* egunkaria ere sortu zuen, politi- kaz eta langile mugimenduz aritze- ko. Gasteizko apezpikutzak, ordea, horrelako eztabaidetan ez parte hartzeko agindua eman zion, eta kulturagintzara bideratu zen.

Francoren altxamendua gertatu zenean, ihes egiteko gomendatu zioten, eta Hendaiara joan zen; aur- kariekin negoziaketetan aritu zen, ordea, konponbidea lortzeko. Alfe- rrik ari zela ikusita, eta Bilbora itzuli nahi izan zuen.

Baionatik Bilbora zihoan Galerna itsasontzia hartzean hasi ziren bere azken egunak, ordea. Erdibidean, Alcazar de Toledo ontziak Galerna geldiarazi, eta bidaiari guztiak atxi- lotu zituzten. Gau hartan Ondarreta- ko espetxera eraman zuten, eta 1936ko urriaren 18an Hernaniko hi- llerrian fusilatu zuten, beste hainbat abertzalerekin batera.



Saridunak

sarrerak

Atarikideentzat 20 sarrera pare ditugu

Aitzol - Jose Ariztimuño (1896-1936)
Bizitza bati omenaldia

Eñaut Elorrieta eta Mikel Markezen kantaldia • Harkaitz Canoren poemak
Aitzol. Euskal pizkundearen heriotza izeneko dokumentalaren estreinaldia

GAUR

Urriak 16, asteazkena
19:30ean
Donostiako
Antzoki Zaharrean



- Alazne Azpiz (Amarotz)
- Izarne Olano (Tolosa)
- Maite Mendia (Berastegi)
- Feli Larreta (Tolosa)
- Karmen Izagirre (Irura)

- Patxi Mujika (Hernialde)
- Iñigo Zabala (Berrobi)
- Ion Sagastume (Amezketza)
- Jaione Galarraga (Altzo)
- Axun Urbieta (Asteasu)

- Ines Olano (Ikaztegieta)
- Miren Argia (Zizurkil)
- Agustin Iarza (Amasa)
- Nekane Izagirre (Bedaio)
- Victoria Uzkudun (Ibarra)

- Ana Isabel Zubia (Leaburu)
- Pello Otegi (Aduna)
- Maite Ormaetxea (Orendain)
- Benantxio Urretabizkaia (Gaztelu)
- Joxe Ramon Aranburu (Alkiza)

Juantxo Agirre Mauleon • Aranzadiko kidea eta dokumentalaren egilea

«Herri guztiek behar dituzte horrelako pertsona ekintzaileak»

Eider Conderekin batera, *Aitzol* dokumentalaren zuzendaritzan aritu da Aranzadiko kide den Juantxo Agirre Mauleon tolosarra.

Zergatik hartu duzue *Aitzol* Euskal Pizkundearen erreferentetzat?

Lehenengo, Tolosan, giza eskubideen alorrean urraketak jasan zituzten pertsona guztien kasuak ikertu eta horren inguruko liburuak argitaratu genituen. Egia da, biktima guztiak berdinak izaten direla. Noizean behin, ordea, badira esanguratsua goak direnak, eta horietako bat zen Aitzol.

Zergatik?

Ez zen pertsona arrunta: euskararen alorreko erreferentea zen, eta baita prentsakoa, bertsolaritzakoa, politikakoa eta sindikatugintzakoa ere. Horregatik, matxinatuek bera hiltzearekin batera bere ideiak eta testigantzak ezabatu nahi izan zituztela esango nuke. Bigarren maila batean, gainera, bere oroimena desagerrarazi nahi zuten.

Neurri batean lortu zuten?

Lehenengo, Ondarretako kartzelan torturatu egin zuten. Gero, gauetz, isilean, idatzizko frogarik gabe, erail eta lurperatu egin zuten Hernaniko hilerrian. Duela urte batzuk Aranzadiko arkeologia talde batek Hernaniko hilerrian ikerketa bat egin zuen, eta ez zuten, Aitzolen eta bere kideen gorpurik aurkitu. Beraz, gure saiakera bere oroimena gizarte honetara berriz ekartzea izan da, nolabait, dokumental baten bitartez. Urteak igaro diren arren, bere lekukoa hor dugula aldarrikatu nahi dugu.

Hainbat esparrutan aritu zen Aitzol, eta gizon ekintzailea izan zen. Ondorengoan eredu ere bai?

Zalantzarik gabe, bai. Xabier Lizardi,

Aitzol bere garaiko izarra izan ez zen arren, ezinbesteko pertsona izan zela dio Juantxo Agirre Mauleonek.



ASIER IMAZ

adibidez, literaturgintzan aritu zen. *Aitzolek*, ordea, gizarteko hainbat eremu ukitu zituen. Politika, kultura nahiz lana, esaterako, sare berean bildu zituen. Horregatik, behar bada, arintasunez mugitzen zen arlo bakoitzean, eta guztiak uztartzen zituen, gaur egun bezala. Izan ere, orain ezin dugu ulertu euskararen aldeko jarduerak bat prentsarekin lan

“ Hitz batean, Jose Ariztimuño *Aitzol* aktibista hutsa zen »

egin gabe, edo politikarien erabakirik gabe, edo gizartea kontuan hartu gabe. Nire ustez, herri guztiek behar dituzte horrelako pertsona ekintzaileak.

Aitzindaria izan zen bere garaian, beraz.

Batzuetan, bere irudia ikusita, apaiz

soila zela iruditzen zaigu. Horren gainetik, ordea, ausardia izaten zuen komunisten eta anarkisten mitinetan parte hartzeko, eta bere irizpideak zabaltzeko. Era berean, *El Diaren* gisako egunkari bat sortu eta bertan euskara eta euskal literaturaren inguruko artikulatuak idazten zituen azalera ateraz, ordura arteko ohiuren aurka. *Aitzolek* duintasuna eman zion bertsolaritzari ere, orduko kultur klaseak bertsolaritza bigarren mailako literatura edo tabernetan sortzen zen kultura zela uste baitzuten. Aitzindaria izan zen, beraz.

Honek gizarte gaietarako dohainak areagotu zizkion.

Bai. Giza eskubideen aldeko defentsan ere arituzen, ez baitzuen onartu matxinatuen jarrera bortitza; azken unera arte saiatu zen, negoziazioen bitartez, irtenbide bat bilatzen, lortu ez zuen arren. Eta azpimarratzekoa da hemen, bere leialtasuna. Izan ere, erbestean babestuta zegoen arren, bere jendearekin batera borrokatzea erabaki zuen, Agirre le-

hendakariarengana Bilbora itzuliz. Erabaki horren ondorioz, heriotza topatu zuen bidean.

Euskal Pizkundea mugimenduen barruan, behar bada *Aitzol* ez da geroa sonarik handienetakoa lortu duena izan. Dokumental hau bere jardunaren errekonozimendu bat ere izango da?

Ez dago zalantzarik, Lizardik edo Lauaxetak olerkigintzan emandako

“ Gaur egungo bertsolaritza ezin da ulertu bere ekarpenik gabe »

emaitza goi mailakoa izan zela esaterakoan. Baina kultur mugimendu guztien azpian, beti daude bultzatzaileak diren batzuk; agian ez dira izarrak, baina guztiz beharrezkoak dira. Eta horietako bat izan zen Aitzol. Guztien ezaguna zen, eta baita

denen sustatzailea ere. Hitz batean, aktibista hutsa zen, egunkariak sustatu zituelako, edo bertsolaritza sustatu zuelako. Ez zen bertsolari ona izan, baina gaur egungo bertsolaritza ezin da ulertu bere ekarpenak kontuan hartu gabe; bera izan zen saio eta lehiaketak antolatuz, eta jendaurrean aurkeztu zituena.

Dokumentalak, guztira, hamaika elkarrizketaturen testigantzak biltzen ditu. Bere izaera dinamikoaren ikuspuntu guztiak eskainiko dituzte?

Hori da. Jarduera anitz baten aurrean irizpide anitzak daude. Alde bateatik, irudi zaharrak hartu ditugu filmetatik, eta *Aitzolen* inguruan zeuden argazki guztiak bilatu eta dokumentalean txertatu ditugu. Hori, ordea, ez da nahikoa, gaur egun ezagutzen dugun historia oso administratiboa eta oso hotza delako; guk, Aitzol pertsona moduan nolakoa zen ere jakin nahi genuen, eta hori oso zaila da. Horregatik elkarrizketatuak izango dira filmean.

Noiz hasi zineten proiektu honekin?

Bi urte eta erdi daramatzagu. Aranzadik egin duen lehen dokumental luzea da, eta guztia etxean bertan egin dugu: zuzendaritza, ekoizpena, eta edizioa. Bertan Eider Conde eta biok aritu gara, eta guretzat eronka bat izan da. Dena den, proiektu zabalago baten zati da, eta duela urte eta erdi Tolosako hilerrian jarritako monumentuarekin hasi zen dena. Joan den apirilean, berriz, liburua aurkeztu genuen. Orain, pertsonaia hau berreskuratu nahi izan dugu.

***Aitzolen* aurpegi ekintzailea ezagutzeko balioko duen arren, bere fusilamenduak ere garrantzia izango du dokumentalean, ezta?**

Egunotan Lasa eta Zabalaren inguruko gogoetak egiten ari gara, beren desagerpenaren urteurrenagatik. Hamarkada batzuk lehenago gertatu zen *Aitzolen* fusilamendua, eta antzeko torturak eta heriotza sufritu zituen berak ere. XX. mende hasieran eta bukaeran, beraz, gertakizun berak suertatu dira Tolosan, eta horrek gogoeta sakona eskatzen du.

ZERBITZUAK KONPARTITU BEHAR DITUGULAKO

2.000 biztanletik beherako herrientzako zerbitzu berria

Laguntza teknikoa, juridikoa, finantzarioa...

itten
herriekin lan egiten



Gipuzkoako Foru Aldundia

Alaitasun doinuen mezulari



Incansables Txaranga sortu zenetik zendu zen arte tronpeta jotzen ibili zen herriz herri. INCANSABLES TXARANGA

Larunbatean, Txomin Castro tronpetajolea oroituko dute Amasa-Villabonan; bere umoreak egin zuen handi

MIKEL IRAOLA

Alai bezain eskuzabal. Horrela gogoratzen dute gertukoek Txomin Castro billabonatarra. Euskal Herriko eta beste hainbat lekuetako txoko guztiak zeharkatu zituen tronpeta hartuta bere txarangarekin. Bere umorea besteei transmititzeko zuen ahalmenak egin zuen ezagun leku horietan guztietan.

1945eko azaroaren 18an jaio zen Amasa-Villabonako Kale Nagusian, amaren sabelean zazpi hilabete zeramatzala, hortik *Zazpiki* edo *Sietemesino* izengoitiak. Jaiotzean, kotoiz babestutako zapata kaxa batean Tolosako ospitaleko inkubagailura eramantzen zuten.

Herrian, berriz, *Domingin* deitzen zioten. Baina horiek ez ziren izan zituen ezizen bakarrak, izan ere txarangarekin pasatzen zen leku bako-

tzeko hamaika izenez ezagutzen zuten, *Vinagrillo*, *Magras*, edota *Kalanbres*, besteak beste.

Gaztetan, Villabonako Ubarretxena musikariarekin lehen tronpeta eta solfeo klaseak jaso zituen, eta 16 urte zituela Hernaniko bandan ekin zion musikari ibilbideari. Tolosako Musika Bandarekin ere aritu zen jotzen hainbatetan.

Festarik festa

Baina musika bandez haratago, festa giroa zen *Domingin*-ek gehien atsegin zuena. Horrela, *Los Pomposos* izeneko fanfarrearekin dozena herrietako kaleak alaitzen ibili zen. *Gilito*, taldeko zuzendariarekin ere umorezko sketch-etan ere parte hartu zuen. Hura utzi eta gero, *Polito y sus Anastasios* fanfarrearekin izan zen hainbat urtetan. Los Fifos berbera taldearekin ere ibili zen denbora

tarte batean, besteak beste, Goizuetako Tiffanitxo dantzalekua alaitzen.

Hala ere, tronpetajole gisa urterik gehien Incansables txarangan eman zituen. 1971. urtean, Ergobiako jaiak alaitzen ari zirela, Estanko tabernan txaranga bat sortzea erabaki zuten *Kanario*, *Paotxa*, *Pipas*, *Zapa* eta *Domingin* berak. Oso gustuko zituen Lesaka eta Iruñeako San Ferminak,

“**Pertonekin harreman ona izateko ahalmen berezi hori zuen**”

ANDONI ELOSEGI • LAGUNA

baita Leitzako jaiak eta Tolosako inauteriak ere. Txaranga 2000. urtean utzi bazuen ere, nohizean behin laguntzera joaten zen. Horretarako beti prest izaten zen.

Andoni Elosegi urteak eman zituen bere alboan txarangan: «Txikitatik, jotzen ikusten nituenetik arreta piztu zidan, jotzeko eragatik, baita izateko moduagatik ere. Txarangan

sartu nintzenez, gehiago ezagutu eta pentsatzen nuen ikuspuntu hori berretsi zen» dio Elosegi. Berarentzat, «berezia» zen Txomin.

Herriz herri, ordu asko eman zituzten batera, eta dudarik gabe, bere umore ona azpimarratu du Elosegi: «Batuetan goizeko lauretan iristen ginen etxera jotzetik, eta bederatzietarako berriz ere furgonetan geunden beste nonbaitera bidean. Nekatuta egoten ginen, baina bera sartu orduko berriz ere jai giroa nagusitzen zen. Irri egin arazten zuen».

«**Pertsona handia**»

Txaranga eta musikaz gain, familia eta Behar Zana elkartearen zuzendari gisa Txominen bizitzako beste bi ardatz nagusiak. Orokorrean, «pertsonak maitatzen zituen. Berdin zitzaion nor zuen parean. Ospetsua ala ez, edo izan aberatsa edo txiroa, berdin tratatzen zituen pertsona guztiak. Pertsonen harreman ona izateko sen berezi hori zuen». Gorputzez txikia bazen ere, alaitasun eta eskuzabaltasun horrek egin zuen handi *Domingin*, *Zazpiki*, *Siete* edo Txomin.

Larunbat gauean omenaldia egingo diote Villabonan

Gaixotasun bati denbora luzez aurre egiten ibili ondoren, apirilaren 11n zendu zen Txomin. Gertukoengan aztarna utzi zuen eta horren esker modura, omenaldi bat egitea otu zitzaion bere txaranga-kideei: «Neurri handi batean, Incansables txaranga hain ezagun egitea, Txominek eragindako haziri zor zaio, jendearekin erlazionatzeko zuen erraztasunagatik», dio Andoni Elosegi.

Txominek txarangarengatik, eta oro har, pertsonengatik egindako guztia bere horretan ezin utzi litekeela ikusita sortu zen omenaldiaren ideia. «Familiari, lagunei, eta Villabonako herritari proposamena bota genien eta segituan onartu zuten. Argi zegoen, zerbait egin behar zela, eta zerbait hori Villabonan bertan izan behar zela».

Hasiera batean, eguneko ospakizun bat egitea pentsatu zuten. Behar Zana pilotalekuan herri bazkari bat egitea ere bururatu zitzaion, baina azkenean gauzak aldatu beharrean izan ziren: «Bazkariari dagokionez trabak izan genituen lekua aurkitzeko, eta omenaldiari zegoenez, geroz eta jende gehiagok eskaini zuten bere burua eta izaera aldatu genion».

Modu horretan, 18:30ean eman go zaio hasiera. 20:00etan, kontzertu omenaldia egingo dute: «Incansables txarangan parte hartu dugunok 45 laguneko banda moduko bat eratu dugu eta denok batera arituko gara. Oinkari dantza taldea, V.O.S. Cuartet, Ainara eta Joana Ortega, eta bertsolariak ere izango dira. Karlis argazkilariak ere ezagutu zutenen testigantzekin bideo bat eratu du eta bertan proiektatuko da». Horren ondoren, Aburuza sagardotegira joango dira denak batera, eta gauean, Incansables Txaranga ibiliko da giroa alaituz.

tolosaldeko ataria



Sartu gure webgunean
ataria.info

Jarraitu albisteak Twitter bidez
@tolosaldeataria



Tolosaldeko Ataria
orrialdeari eman "atsegin dut"





Amando Hernandez tolosarrari ongietorria egin zioten unea, 2003ko urriaren 23an. ATARIA.

Epaiketaren zain segitzen dute

'Egunkaria'-ren aurka duela 10 urte eginiko operazioan Amando Hernandez atxilotu zuten; Begoña Zubelzuk auzipetua jarraitzen du

IÑIGO TERRADILLOS

Euskaldunon Egunkaria ixteko agindua eman zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak 2003ko otsailaren 20an. Polizia operazio hartan euskarazko kazetaren sorreran zuzendaritzako kide izandako hamar lagun atxilotu zituzten, tartean, Martxelo Otamendi tolosarra, Euskaldunon Egunkaria-ko orduko zuzendaria. Euskaldunon egunkaria ETAK sortu, ETAK finantzatu eta ETAK bideratu zuela zioen atxilotuen aurkako autoak. Bada, zortzi hilabete beranduago, gaurko egunez, duela hamar urte, bigarren polizia operazioa burutu zuen Guardia Zibilak del Olmo epailearen aginduz, Egunkaria-ren aurka.

Kasu horretan, kazetaren administrazio alorrean aurka egin zuten, Andoingo Martin Ugalde kultur parkea kudeatzen duen Buruntzape SL-ren barruan zeuden enpresetako zortzi ordezkari atxilotuz. Tartean, Amando Hernandez tolosarra, Tolosaldea Komunikabideak SLko arduraduna.

Lehenengo operazioaren kasuan, Otamendi otsailaren 25ean geratu zen aske fidantza ordainduta, eta inkomunikatuta egon zen egunetan torturatua izan zela salatu zuen. 2010eko apirilaren 12an iritsi zen auzi haren aldeko epaia, absoluzioa. Sententziaren arabera, auzipetuek ez zuten deliturik egin, eta ez zuten ETArekin loturirik.

Bigarren operazioaren kasuan, lau egun inkomunikaturik egon, eta epailearen aurretik igaro ostean, aske geratu zen Amando Hernandez. Baita gainerako bederatzi atxilotuak ere, kargurik gabe batzuk, bermea ordainduta besteak. Egunkaria-ren aurkako operazio honean, auzi ekonomikoa deiturikoa, Begoña Zubelzu ibartarra inputatu zuen gerora epaileak. Berarekin batera, egun, beste zazpi lagunek ja-

rraitzen dute auzipetuta. Eurentzat zigor eskaera guztira, 128 urteko kartzelakoa eta 221 milioi eurokoa da. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren esku dago auzia, eta Fiskaltza da orain akusatzailerak bakarra, aku-

“ ‘Egunkaria’ itxi eta hurrengo egunean egunkaria kaleratzea irain handia izan zen »

AMANDO HERNANDEZ

sazio partikularra —Dignidad y Justicia— kanpoan utzi zuelako epaileak, eta Jaurlearitzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erretiratu egin zituztelako euren akusazioak deliturik ez zutelako ikusten. Beraz, Fiskaltza-

“ ‘Euskaldunon Egunkaria'-ren kontuak garbiak ziren, beraz, itxi egin behar da epaiketa »

MARTXELO OTAMENDI

ren esku dago epaiketa gauzatuko den ala ez.

Langileen lana, «goraipatzekoa»

Amando Hernandezek gauza batzuk «atzo gertatu izan balira bezala» gogoratzen dituela aitortu du. «Atxilotetaren unea oso gogorra izan zen; emaztea eta hamar urteko umea etxeko atarian eduki zituzten zain, nirekin erregistroa egiten ari ziren bitartean». Hala ere, bere atxilotuak «arina» izan zela dio. «Bai behintzat, Martxelo Otamendirekin edota Iñaki Uriarekin egin zutenarekin alderatzen badugu, horiena latzagoa izan baitzen».

Hernandezen arabera, Egunkaria itxi eta hurrengo egunean egunkari bat kalean izatea «irain handia» izan zen. «Hori ordaindu beharra zegoen, eta guri egokitu zitzaigun». Zazpi urte eta gero iritsi zen absoluzio epaiarekin «poz handia» sentitu zuela dio, baina, baita «amorrua» ere, «Egunkaria desagertzea lortu zutelako».

Berria sortzarekin egoera nolabait «normalizatu» egin zela adierazi du Hernandezek, baina, Egunkari-ko langileen lana nabarmendu nahi izan du: «Egunkariari jarraipena ematea izan zen euren lehentasuna, eta lortu egin zuten. Meritua euren da, beraz, urtemugek balio beharko lukete beraien lana gorai-patzeko». Halaber, auzi ekonomiko-arengatik epaiketaren zain jarraitzen dutenak gogoan izan ditu tolosarrak, eta guztia ondo amaitzea espero duela esan du.

«Epaiketak ez du zentzurik»

Martxelo Otamendi Berria-ko zuzendariak, bere aldetik, Fiskaltzak epaiketarik ez egotea erabakitzea espero eta nahi duela adierazi du: «Ez du zentzurik epaiketa horrek, gure kontuak garbiak zirelako, beraz, epaiketa hori itxi egin behar da». 2013 urte hasieran espero zuten auziaren inguruan zerbait jakitea, baina, oraindik ez dakite ezer. Otamendik positibotzat jotzen du epaileak akusazio partikularra atzera bota izana, eta bai Jaurlearitzak bai eta Aldundiak ere euren akusazioak erretiratzea, «deliturik ez egoteagatik». Hala ere, egoera ez dela erraza gogoratu du: «Auzi ekonomikoan egunkariaren itxieran baino gogorragoak dira zigor eskaerak 16 urterainoko kartzela zigorrak baitaude tartean, beraz, ez da lasai egoteko modukoa; hamar urte igaro dira auzipetuentzat, eta euren egoera ez da batere ona».

Otamendik 2003 urteko otsailaren Euskaldunon Egunkaria-ren itxierarekin nahiz urte bereko urrian kazetaren aurkako bigarren operazioarekin herritarrengandik, eta, batez ere, Tolosaldekoengandik jaso zuten babesa eta elkertasuna eskertu du.

Aurkako akusazioak ukatu dituzte Lopez eta Ayestarane

Berrogei gazteren aurkako 26/11 sumarioan, epaiketako bigarren saioa egin dute; lehen saioan Irati Mujika amezketarra ez zen agertu

ASIER IMAZ

40 gazteren aurkako 26/11 sumarioan, epaiketaren bigarren saioa egin zuten atzo, eta Aritz Lopez tolosarrak eta Mikel Ayestaran billabonatarak deklaratu zuten. Herenegungo saioan, auzipetuetako lau ez ziren epaiketara agertu, tartean Irati Mujika amezketarra.

Mikel Ayestarane bere kontrako akusazioak ukatu zituen, eta Amasa-Villabonako Gazte Asanbladan parte hartzen zuela azaldu zuen: «Gazte Asanbladak deialdi ireki bidez funtzionatzen zuen herria bizirik mantentzeko: hitzaldi, kontzertu, txapelketak... antolatuz». Fiskalak froga moduan mendi martxa bateko argazkia erakutsi zion, eta Santio jaietako txoznetako txanden zerrenda eta hainbat fakturen inguruan aritu zitzaion.

Bere anaia zen Remi Ayestaranen omenaldi ekitaldi bateko argazkia erakutsi zioten: «Ertzaintzarekin lis-karra izan ondoren hil zen Remi, nire anaia», azaldu zuen Mikel Ayestaranek. Etxea miatu zutenean, Poliziak

Remiren eta bere arrebaren gauzak eraman zituztela salatu zuen Ayestarane. Manex Castroren argazki bat atzeman zion poliziak. Txikitako lagunak direla, eta lagun talde berekoak, azaldu zuen.

Mikel Ayestarane deklarazioaren ostean, fiskaltzak dituen «froga eskasak» auzitan jarri dituztela esan zuen, «inondik inora ez direlako ilegalizatutako gauzak». Ayestarane gaineratu zuenez, «mugitzen den gazte oro terrorista da beraiantzat», eta Auzitegi Nazionala «torturapean lortutako deklarazioetan» oinarritzen dela salatu zuen.


Bere aldetik, Aritz Lopez tolosarrak deklarazioan akusazioarekin ez dagoela ados esan zuen, eta Auzitegi Nazionala «jarduerara politikoagatik» epaitzen ari dela salatu zuen, epailearen aurrean eginiko deklarazioa berretsiz.

2009ko azaroaren 24ko sarekadan atxilotu zituzten auzipetu gehienak, eta seina urteko espetxera zigortzeko eskatu du fiskalak, 2007an Segi «erakunde terrorista» izendatu zutela eta.



Auzipetuak, Madrilan, atzo. BERRIA

Hilberriak eta urteurrenak



ESKELAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info



I. urteurrena

Jose Antonio
Balerdi Erauskin

Beti gogoan

Bere aldeko meza, datorren igandean urriak 20, goizeko 10:00etan Tolosako San Frantziskoko elizan emango da. Aldez aurretik mila esker.

Tolosan, 2013ko urriaren 16an.



Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oiarzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
E.P: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketara, Amasa-Villabona, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L.-ko kideak:



Ataria-k Bai Euskarari



'Evita' Amezketara ekarri du Cloppet argentinarrak



Ignacio Cloppet historialari argentinarra Amezketako kultur etxean izan zen atzo, bere azken liburua aurkezten. A. IMAZ

'Eva Duarte y Juan Peron: La cuna materna' liburua aurkeztu du Ignacio Cloppet historialariak Amezketan

ASIER IMAZ

Ignacio Cloppet historialari argentinarrak Eva Maria Iburguren *Evita* Amezketara eraman zuen atzo; herritarren aurrean aurkeztu, bere sustraiak identifikatu, eta azkenik, gonbitea luzatu zien amezketarrei: «*Evita* zuena ere bada, egin ezaiozue leku bat».

Historialari eta idazle argentinarrak *Eva Iburguren y Juan Peron: La cuna materna* liburua aurkeztu zuen atzo Amezketako kultur etxean. 25 lagun inguru elkartu ziren bertan, *Evita* eta Amezketaren arteko loturak erakarrita. Hitzaldiaren sarrera Joxe Mari Oterminek egin zuen, eta herriko emigrazioaren inguruan aritu zen hizketan. Datuak eskuetan, azken mendeetan Amezketatik Ameriketara joandako herritarren ibilerak aipatu zituen Oterminek, adibide zehatz eta argigarri be-

zain harrigarriekin. Ataria Irratiari eskainitako elkarrizketan, Otermin amezketarrak Eva Iburgurenen hitzaldia kokatu zuen: «*Evitaren* abizena Iburguren zen, eta bere birraitona Amezketakoa zen. 1821ean jaio zen, eta 1857an ezkondu zen. Hemen ez zuten familiarik izan, baina 1860 inguruan Ameriketara joan eta han jaio ziren ondorengoak».

Ondoren hartu zuen hitza gaueko gonbidatu bereziak. Cloppet-ek bere liburua ikerketa sakon baten ondorioa dela esan zuen: «Duela bi urte Ipar Euskal Herrian egon nintzen bisitan. Juan Peron eta Eva Duarteren arbasoak bertako lau herritakoak ziren, eta horren inguruan idatzi nuen liburua jakin min handia piztu zuen Iparraldean». Zerbait, ordea, airean gelditu zen, hau da, Eva Iburgurenen amaren aldeko familia nongoa zen oraindik ez zegoen argi. Galdera horren erantzuna

Cloppet-ek atzo Amezketan aurkeztu zuen liburuan etorri zen: «Asko harritu ninduen jatorri hori aurkitu nuenean, eta ez ni bakarrik, *Evita* ren inguruan lanean ibili diren historialari guztiek ere ezustekoan hartu zuten berria».

Gipuzkoako eta Euskal Herriko identitatea indartsu gordetzen duen herria da Amezketara Cloppet-entzat. Izaera horrek Eva Iburguren hobe kiago ulertzen lagundu ziola dio argentinarrak: «Herri honetako odola izateak bere pertsonalitatea hobeto ulertzen lagundu zidan. Bere amarengandik jaso zuen pertsonalitate borrokalaria hori, eta baita hitzezkoa pertsonaren izaera ere. Euskal balore guzti hauek, ondoren izan dute eztanda Ameriketara». Euskal herritarrei azkenik, *Evita* emakume eredu bezala hartzeko gonbitea luzatu zien Cloppet-ek; «mundua hobetzen lagunduko duen eredu bat bezala, izan ere, nire ustez, oso baliagarria izango litzaioke herri honi ispilu hori». Azkenik, *Evita*-ri lekua egitea eskatu zuen argentinarrak, euskaldunon zati ere badelako Argentina politikari ospetsu eta maitatua.

Agenda

DEIALDIAK

AMASA-VILLABONA. Mintzolak antolatutako Munduko kantu inprobisatuaren jardunaldietako bigarren saioa izango da gaur, Amasa-Villabonako Subijana Etxean. Miren Artetxe eta Iñaki Murua izango dira hizlariak.

AMEZKETA-ALEGIA. Nafarroa Oinezera joateko autobus antolatu dute Amezketara eta Alegiara udalek. Irteera: 8:30ean izango da Beartzaneko aparkalekutik. Itzulerara arratsaldeko 18:00-18:30ak aldera izango dela adierazi dute. Interesatuak udaletxean izena eman beharko dute, eta hilaren 17a izango da horretarako azken eguna, eguerdiko 12:00ak arte. Helduak 10 euro, eta ikasleak eta langabezia daudenak 7 euro ordaindu beharko dute.

TOLOSA. Iurre Elkarteak, urtero bezala, bertso afaria antolatu du hilaren 19rako. Bertso-afaria izango da, Xebastian Lizaso, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariak. Aferia bederetzetan hasiko da, eta izena emateko 606 63 04 00 telefono zenbakira (Alex) deitu beharko da, hilaren 17a baino lehen.

TOLOSA. Lehiberik antolatuta IKT Astearen barruan, gaur, 09:00etatik aurrera Usabal industriagunean izango da langileei zuzendutako autobusa. Bestetik, Tolosako kultur etxean izango dira herritarrei begirako saioarekin, 14:15etik 16:15era.

TOLOSA. Tolosako Atsedena taldeak hilaren 18, 19 eta 20rako irteera antolatu du Hernialdera. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek zuzendua izango da, eta interesa-

tuek izena emateko 635 74 64 47 telefono zenbakira deitu beharko dute.

TOLOSA. Oargi mendi taldeak irteera antolatu du, Escuin aldera, hilaren 18, 19 eta 20rako. Tella herrian egingo dute lo. Larunbatean, Viceto lepora igo eta bertatik hiru Mariak egingo dituzte 10 edo 11 orduko ibilbidea eginez. Igandean, autoak Sensako pistan utzi eta bertatik Castillo Mayorrera igoko dira. 4 edo 5 orduko ibilbidea izango da. Izena emateko 688 69 86 42 telefono zenbakira deituz edo info@oargi.org helbide elektronikora idatziz. Azken eguna urriaren 16a izango da. Izena ematerakoan 20 euro aurreratutako beharko dira ondorengo kontuan: 3035 0028 11 0281141038.

OREXA. Haizeri laguntzeko Elkartasun Eguna antolatu dute urriaren 25ean, Oresan. 17:00 etan *Porrotxekin Haizerentzat gure muxu, irri eta bihurrikeriak* saioa izango da. Ondoren, txokolate jatea. Sarrerak 5 eurotan jarri dituzte salgai: Oresan Kontxun, Lizartzan Joxe Marinen, Tolosan Rakun, Alegian Route 33n, Uli Mankomunitatean, Ibarra Nazabal harategian eta Villabonan Amasa okindegian. Azken eguna hilaren 20a, igandea, izango da. Diru laguntza eta elkartasuna beharrezkoak dituztela eta, 2095 5081 91 9113138201 Kutxabank-eko kontu korronte zenbakia ere eskura jarri dute.



Farmaziak


Gaur

Tolosa: Egunekoa eta gauekoa:
Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

Lasa eta
Zabalaren
omenez...

kareak erre ez duena

emanaldia ikusgai
ataria.info
webgunean



Mauka
berria

GAURKO ESKAINTZA

**Ozeanoari
buruzko
guztia ikasi
Biarritzen**



Cité de l'Océan
Plateau de l'Alalay
Biarritz 64200 - FRANTZIA
www.citedeloccean.com

Prezioa
7€
helduak

Prezioa
5€
haurrak

www.mauka.eu

berria
taldea